

Kaixo danoi,

Adierazpen instituzional bateratua adosteko ezgaitasuna eta borondate politiko urria ikusita eta adierazpen hauei ematen zaien balio eza kontuan hartuz, egun sinbolikoetan xede handia erakutsiz baina gero ekintzetan zehaztu gabe denboran desagertuz, gaiaren gainean mozio bat aurkeztuko dugu Baleike udal taldeak, hurrengo udalbatzarako. Tamalez, LGTBI kolektiboaren berdintasunean aurrerapausu instituzional errealak egiteko eta ekintza zehatzak adosteko alderdi politikoek dugun modu bakarra dela dirudienez, mozioa aurkeztea erabaki dugu. Egun seinalatueta adierazpen eta borondateak argitaratzea garrantzitsua dela deritzogu, baina gero xede hauek denboran zehar gehiegitan ezerezean geratzen dira. Neurri zehatzak hartzea ezinbestekoa dela deritzogu. Ondorioz mozio hau proposamen bezela bidaltzen diegu alderdi guztiei, moldatzeko eta adostasunak bilatzeko borondate osoz talde politiko guztion ekarpenetara zabalik. Gure helburua gutxieneko konpromezu batzuk lortzea eta aurrera eramatea da, udal ordezkari garenez LGTBI kolektiboarekiko erantzukizuna bait dugu.

Honetaz gainera, gaur atzaldean 19:30-etan Atxabaltan TransMarikaBolloFeminista koordinadorak antolatutako manifestaldian parte hartzeko deialdia zabaltzen diegu gure auzokide guztiei.

